



EUSKAL LANBIDE HEZIKETA MUNDURANTZ ZABALIK Jardunaldiak

Jornadas LA FORMACIÓN PROFESIONAL VASCA ABIERTA AL MUNDO

OTSAILA
FEBRERO
FEBRUARY

Euskal Lanbide Heziketa
Mundurantz Zabalik

La Formación Profesional Vasca
Abierta al Mundo

Basque Vocational Training
Opened to the World

KU... STIÁN



Antolatza

ASCO

EUSK

HEZKUNTZA
ETA INERKIA
Lanbide Hez
Ikaskuntzako

lanbidez heziketa
formación profesional

ingabeko
skuntza
zaje permanente

‘Euskal lanbide heziketa mundurantz zabalik’ izeneko bi jardunaldi interesgarri antolatu zituzten Euskal Lanbide Heziketa nazioarteko bihurtzeari buruz otsailaren 4an eta 5ean Donostian, Kursaal Jauregian.

2.000 lagun inguru izan ziren ekitaldian bi egun horietan. Hizlarietako batzuk Atlantikoaren beste aldetik (Txile), Italiatik, Finlandiatik edo Frantziatik etorri ziren

Bajo el nombre ‘La formación profesional vasca abierta el mundo’, los pasados 4 y 5 de febrero, en el Palacio de Congresos Kursaal de San Sebastián, se celebraron dos interesantes jornadas en torno a la internacionalización de la Formación Profesional vasca.

Durante estos dos días, cerca de 2.000 personas acudieron al evento, algunos de cuyos ponentes aterrizaron desde el otro lado del Atlántico (Chile), Italia, Finlandia o Francia.

→ Otsailak 4 asteazkena / Miércoles 4 de febrero



↓ **Josu Aboitiz**, director de FP del Gobierno Vasco centró su intervención en algunas experiencias de formación en Europa.



↓ **Iñaki Mujika** sailburuordea Euskal Lanbide Heziketaren izaera internacionalari buruz mintzatu zen.



↓ **Denis Brillant**, Pabeko Lanbide eta Artisautza Kamarako Formakuntza Arduraduna eta **Ramón Martínez de Murgia**, TKNiKako zuzendaria.



↓ Nazioartekotzearen garrantzia Lanbide Heziketan izan zuen hizpide **Bruselako Komisioko ordezkariak**.



↓ **'Jazztronomica'** taldeak kafea hartzeko atsedenaldiri musika jarri zion.

↑ **Amaia Guijarro**, HETELeko kudeatzailea.



↓ **Fernando Susteta**, coordinador del proyecto de colaboración entre las localidades de Camarones (Argentina) y Mutriku (Gipuzkoa).



↓ **Lars Möller** (CIRIUS) y **J.L. Fernández Maure**, dinamizador de proyectos internacionales de Tknika, hablaron sobre los proyectos de colaboración entre Dinamarca y Euskadi.



↓ AICEren esperientziari buruz hitz egin luze **Paloma Enríquezek**, CEBANC-ko zuzendaria.



↓ Cerca de 200 personas acudieron a la cena de bienvenida que se celebró en la sidrería Saizar de Usurbil

→ Otsailak 5 osteguna / Jueves 5 de febrero

Iñaki Agirre, Eusko Jauriaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari Nagusia.



↓ **Dario Montoya**, Kolonbiako SENAKo Zuzendari Nagusia, bere ikasleek Gipuzkoan egindako pasantiari buruz hitz egin zuen.



↓ **Xabier Maidagan**, Innobasqueko Nazioartekotzeraren zuzendari orokorra.



↓ **Joxe Mari Elola**, Lanbide Heziketako eta Etengabeko ikaskuntzako sailburuordtzako aholkulari teknikoa.



↓ **Oreka TX-k** eta **Aukeran Dantza Taldeak** jardunaldietarako espreski sortutako ikuskizuna eskeini zuten.

↓ Los actores de **Wazemank** provocaron las risas del público con sus divertidos sketches.



↓ **Maximiliano Mariano Jara** centró su intervención en los programas de especialización de Chile.



↓ Atzerrian praktiketan ibilitako ikasleen artean mahai inguru interesgarria bat antolatu zuten.



↓ 'Políticas y estrategias de colaboración' fue el título de la ponencia de **Tontxu Campos**, consejero de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.



↓ **Gianfranco Simoncini**, Italiano EARLALLEko presidente ordea.



↓ Firma de acuerdos internacionales para promover la movilidad de los alumnos de la FP vasca.



↓ **Igone Azpiroz**, Hezkuntza, Unibertsitate era Ikerketa sailaren Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaria Leonardo era Erasmus egitarauai buruz mintzatu zen.

Bernard Cazala

Pirinio Atlantikoetako Lanbideen eta Artisautzaren Ganberako lehendakaria

Presidente de la Cámara de Oficios y Artesanía de los Pirineos Atlánticos

“Euskadirako eta Akitaniarako diploma komun bat sortzea da gure helburua”

“Nuestro objetivo es crear un diploma común para Euskadi y Aquitania”

Bernard Cazala Pirinio Atlantikoetako Lanbideen eta Artisautzaren Ganberako lehendakaria da. Erakunde horrek orain urtebete, Eusko Jaurlaritzaren bitartez, Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeekin lankidetzaren proiektu bat jarri zuen abian. ‘Euskal Lanbide Heziketa Munduari irekia’ biltzarreko mahainguru batean elkarlan horren esparruan buruturiko helburu eta jarduerak ezagutzera eman ziren.

Bernard Cazala es presidente de la Cámara de Oficios y Artesanía de los Pirineos Atlánticos, entidad que inició hace un año un proyecto de colaboración con los centros de Formación de Euskadi a través del Gobierno Vasco. El congreso ‘La Formación Profesional Vasca Abierta al Mundo’ dio a conocer, en una mesa redonda, los objetivos y acciones llevadas a cabo en el marco de este trabajo conjunto.



“Une honetan ea bi aldeetako ikastetxeen arteko lankidetzaren bideragarria izan daitekeen aztertzen ari gara”

“En estos momentos realizamos un estudio de viabilidad de cooperación entre los centros de ambos lados”



- Ez dago Lanbideen eta Artisanautzaren Ganberarik Euskadin. Esango diguzu zer funtzio duen?

- Zerbitzu publiko bat da, eta honako eginkizun hauek ditu: batetik, ikaskuntza eta heziketa, eta bestetik, Pirinio Atlantikoen Departamenduko 11.000 artisau-enpresen interesak eta horien garapen ekonomikoa defendatzea.

- Akitaniako artisau-enpresek zer profil dute?

- Enpresa txikiak dira, gehienak hamar langile baino gutxiagokoak, zerbitzua eta gertutasuna eskaintzen dutenak. Euskadin biztanleak hirietan bizi dira, baina gure kasuan sakabanatuagoa dago. Eta okin bat herri txiki batetik desagertuz gero, zerbitzu publiko bat desagertzen da.

- Zenbat ikasle ditu Lanbideen Ganberak eta zer sektoretan?

- Pauko eta Baionako gure bi ikastetxeetan guztira 1.000 ikastunek ikasten dute. Eraikuntza izan ezik, gainerako sektore guztiak hartzen ditugu: elikadura, automobilgintza, hortz-protesiak, estetika, ile-apainketa eta jostintza. Laneratze-tasa, ikastun-kontratuaren bitartez, gutxi gorabehera % 75ekoa da.

- La Cámara de Oficios y Artesanía es una figura que no existe en Euskadi. ¿Puede explicar cuál es su función?

- Es un servicio público cuya misión es abordar, por un lado, el aprendizaje y la formación y, por otro, defender los intereses y el desarrollo económico de las 11.000 empresas artesanales del Departamento de los Pirineos Atlánticos.

- ¿Cuál es el perfil de las empresas artesanales de Aquitania?

- Se trata de pequeñas empresas, en su mayoría de menos de diez trabajadores, que ejercen un papel de servicio y de proximidad. En Euskadi, la población está estructurada en ciudades, pero en nuestro caso está más dispersa. Y si un panadero desaparece en un pueblo pequeño, es un servicio público el que desaparece.

- ¿Cuántos alumnos tiene la Cámara de Oficios y en qué sectores?

- En nuestros dos centros de Pau y Baiona estudian un total de 1.000 aprendices. Abarcamos todos los sectores menos la construcción, alimentación, automoción, prótesis dental, estética, peluquería y costura. La tasa de inserción es aproximadamente del 75% a través del contrato de aprendizaje.

“Frantzian, okin bat herri txiki batetik desagertuz gero, zerbitzu publiko bat desagertzen da”

“En Francia, si un panadero desaparece en un pueblo pequeño, es un servicio público el que desaparece”



- Euskadiko LHko ikastetxeekin duzuen lankidetzaproiektua zein puntutan aurkitzen da?

- Urtebete dela Akitania-Euskadi foroaren esparruan Eusko Jaurlaritzarekin abian jarritako proiektuari esker, orain ea lankidetzabideragarria izan daitekeen aztertzen ari gara. Mugaren bi aldeetako ikastetxeek bisitak antolatu dituzte mugaz bestaldeko ikastetxeak ezagutzeko eta irakasleek bilerak egin dituzte bi hezkuntza-sistemei buruzko ezagutzak trukatzeko.

Irakasleen balantzearen arabera, proposamen batzuk egingo ditugu etorkizunean lankidetzalanak garatzeko. Horiek txosten batean jasoko ditugu, Akitaniako Lurralde Kontseiluaren aurrean edo Europan, aurreikusitako jardueren izaeraren arabera.

- ¿En qué punto se encuentra el proyecto de colaboración con los centros de FP de Euskadi?

- El proyecto que iniciamos hace un año con el Gobierno Vasco, en el marco del foro Aquitaine-Euskadi, nos permite trabajar hoy en un estudio de viabilidad de cooperación. Hemos intercambiado algunas visitas entre los centros de ambos lados de la frontera y se han celebrado reuniones entre formadores para transferir conocimientos sobre ambos sistemas educativos.

En función del balance que realicen los profesores, elaboraremos una serie de propuestas para desarrollar futuras colaboraciones que plasmaremos en un informe ante el Consejo Regional de Aquitania o en Europa, dependiendo del carácter de las acciones previstas.

- Zer lankidetzak bide gauzatu daitezke?

- Hainbat aukera daude. Ikasleak eta irakasleak trukatu daitezke, baina helburua urrunago joatea da. Luzerago, ziurtagiri komuna izatea ahalbidetuko digun eredu bat lortzeko lan egin nahi dugu. Nahiz eta hezkuntza nazionalako diploma bat ez izan, gazte bati ipar Euskal Herrian eta hego Euskal Herrian lana aurkitzeko aukera emango dion diplomaturak eskaintzea da gure asmoa.

- Zer egutegi jarri duzue hori lortzeko?

- Helburu hori luzera lortzeko da ziurrenik, hiru edo lau urtera. 2009an ekintzek garrantzi handiagoa hartuko duten fase batera igaroko gara, eta fase horretan ikasle eta irakasleen arteko trukeak gauzatuko dira. Une honetan gure ikastetxeen funtzionamendua ezagutzea da garrantzitsua, eta leku batean eta bestean egiten dena nola aplikatu daitekeen ikustea. Nik uste dut ikasteko asko dugula bai batzuek bai besteek.

- Zer oztopo ari dira aurkitzen?

- Nik uste dut egoerak ez direla behartu behar, ezta gauza gehiegi batera egin behar ere, besteak beste, kulturalki gure irakasleek Euskadikoek baino mugikortasun txikiagoa dutelako eta era horietako trukeetara ohitu behar direlako.

Hizkuntzaren arazoa ere hor dago. Lankidetzak horrek ikasleentzako eta irakasleentzako hizkuntza-ikastaroak abian jartzera eramango gaitu ziurrenik, gaur egun existitzen ez direnak. Izan ere, mugikortasuna nahi badugu hizkuntza oztopo bat izan daiteke.

- Nola zehaztuko dira ikasleen arteko trukeak?

- Hori oraindik zehazteko dago. Juridikoki gai batzuk argitzeko daude, lan-kontratuak ez baitira berdinak. Esaterako, Aragoirekin egiten ditugun trukeetan, gure ikasleek bertan hamabost egun igarotzen dituzte, aldiz, beraiek denbora gehiagorako etortzen dira, Erasmus programan parte hartzen dutelako.

- Euskadiko ikastetxeetara eginiko bisitetan, ikusi duzue bereziki interesatu zaizuen alderdiren bat?

- Ziurtatzearen eremuan LHko ikastetxeen funtzionamendua oso interesgarria iruditu zaigu. Kalitatearen ziurtatze-sistema bat abian jarri du Eusko Jaurlaritzak, ikastetxearen kudeaketan, antolakuntzan eta errentagarritasunean oinarritua. Horrek berritza, garatza eta lehiakorak izatera bultzatzen ditu.

Enpresen eta ikastetxeen artean dagoen harreman estua ere azpimarratzekoa da, baita etengabeko prestakuntzak hartu duen garrantzia ere. Akitanian langileen % 3 baino ez da ikastaro horietara joaten, Euskadin, berriz, iruditzen zait ohikoa dela enpresek beren langileak birziklatzera bidaltzea.

“Pauko eta Baionako gure institutuetan guztira 1.000 ikasle inguru ditugu, honako sektore hauetan: elikaduran, automobilgintzan, hortz-protesien alorrean, estetikari, ile-apaintzetan eta jostuntzan”

“En nuestros institutos de Pau y Baiona contamos con cerca de 1.000 alumnos en los sectores de alimentación, automoción, prótesis dental, estética, peluquería y costura”



- ¿Qué vías de colaboración ve factibles?

- Existen diferentes opciones. Pueden organizarse intercambios entre los alumnos, entre formadores, pero el objetivo es ir más lejos. Queremos trabajar sobre un modelo que nos permita, a más largo plazo, establecer un certificado común. Sin llegar a ser un diploma de educación nacional, sería un diploma que permitiría a un joven poder encontrar trabajo en el País Vasco norte o en el País Vasco sur.

- ¿Qué calendario se han marcado para conseguirlo?

- El calendario para alcanzar ese objetivo será seguramente largo, tres o cuatro años. En 2009 pasaremos a una fase más operacional, en la que se llevarán a cabo intercambios entre alumnos y formadores. En estos momentos se trata de conocer el funcionamiento de nuestros respectivos centros de formación y de ver cómo se puede aplicar lo que se hace en un sitio y en otro. Yo creo que tenemos mucho que aprender los unos de los otros.

- ¿Qué obstáculos se están encontrando?

- Yo creo que no hay que forzar las situaciones ni pretender realizar demasiadas cosas a la vez. Entre otras razones, porque, culturalmente, nuestra gente tiene menos movilidad que los profesores de Euskadi y deben acostumbrarse a este tipo de intercambios.

Existe también el problema de la lengua. Esta colaboración posiblemente nos lleve a poner en marcha cursos de idiomas, que actualmente no existen, para alumnos y profesores. Porque si queremos esa movilidad, la lengua a veces supone una barrera.

- ¿En qué se concretarán los intercambios entre los alumnos?

- Eso está aún por definir. Jurídicamente hay algunas cuestiones por resolver, dado que los contratos de trabajo son distintos. Por ejemplo, en los intercambios que realizamos con Aragón nuestros alumnos permanecen allí quince días y ellos vienen más tiempo porque participan en el programa Erasmus.

- En las visitas que han realizado a centros de Euskadi, ¿hay algún aspecto que les haya interesado especialmente?

- Nos ha parecido muy interesante el funcionamiento de los centros de FP en el campo de la certificación. El Gobierno Vasco ha puesto en marcha un sistema de certificación de calidad basada en la gestión, en la organización, en la rentabilidad del centro de formación, que les impulsa a innovar, a desarrollarse, a ser competitivos.

También es destacable esa relación tan estrecha que existe entre las empresas y los centros de



**“Ikastetxeak
ziurtatzeko Eusko
Jaurilaritzak
garaturiko sistema
eta Euskadiko
LHaren eta
enpresen artean
dagoen harremana
interesgarria
iruditzen zaigu”**

**“Nos parece
interesante
el sistema de
certificación
de los centros
desarrollado por el
Gobierno Vasco y la
relación que existe
en Euskadi entre la
FP y las empresas”**

- Zein dira, une honetan, Pirinio Atlantikoetako Lanbideen eta Artisautzaren Ganberaren erronkak?

- Ikasketa batzuk edo beste batzuk aukeratzeko orduan, gazteek emango ditugun ikasketak aukeratzeko nahi dugu, horren mende egongo baita gure artisau-enpresek aurrera jarraitu ala ez. Gazteak lanbide tradizionalerako ez badira prestatzen, nor egingo da negozio horien kargu?



formación, y la importancia que ha adquirido la Formación Continua. En Aquitania sólo el 3% de trabajadores acude a estos cursos, mientras que en Euskadi tengo la impresión de que las empresas envían de forma bastante regular a sus asalariados a reciclarse.

- ¿Cuáles son, en este momento, los retos de la Cámara de Oficios y Artesanía de los Pirineos Atlánticos?

- Queremos que a la hora de optar por unos u otros estudios, los jóvenes elijan los que impartimos, porque de ello depende la continuidad de nuestras empresas artesanales. Si los jóvenes no acuden a formarse en los oficios tradicionales, ¿quién se hará cargo de esos negocios?

Pirinio Atlantikoetako artisau-lanbideak

Pirinio Atlantikoen Departamenduan 11.000 artisau-enpresa inguru daude. Sektore horrek lau esparrutan banaturiko 250 lanbide hartzen ditu: elikaduran, eraikuntzan, produkzioan eta zerbitzuetan.

Artisau-jardueraren bi heren landa-eremuetan garatzen da, eta gainerako herena hiriguneetan.

30.000 pertsona inguruk lan egiten dute sektore horretan; hau da, Departamenduko biztanleria aktiboaren % 11k. Horietatik 21.000 soldatako langileak dira, eta 9.000 enpresen jabeak.

Biztanleriaren zahartzea da artisau-jarduerak gainditu beharko duen erronketariko bat: enpresaren % 18k 55 urte baino gehiago du; hori dela eta, bost urteren buruan 2.000 enpresari baino gehiago erretiratuko dira.

Pirinio Atlantikoetako Lanbideen eta Artisautzaren Ganberako ikasleek gaztearen, enpresaren eta ikastetxearen arteko lankidetzan oinarrituriko heziketa jasotzen dute. Ikasleak lana prestakuntzarekin txandakatzen du, eta ikastun-kontratu bat sinatzen enplegu-emailearekin. Azken horrek bere lanbidea erakusten dio, eta egindako lana ordaintzen. Gainera, gazteak ikastetxean kultura orokorra, profesionala eta teknologikoa jasotzen du.

Horrela, diploma lortzeko beharrezko ezagutzak hartzen ditu, eta enpresek eskaturiko gaitasunak eta esperientzia. Akitanian 12.500 konpainiak prestatzen dituzte ikastunak sistema horren bitartez.

Los oficios artesanos en Pirineos Atlánticos

En el Departamento de Pirineos Atlánticos existen cerca de 11.000 empresas artesanales. Se trata de un sector que abarca 250 oficios distribuidos en cuatro campos: alimentación, construcción, producción y servicios.

Dos tercios de la actividad artesanal se desarrolla en zonas rurales y el tercio restante en espacios urbanos.

Cerca de 30.000 personas trabajan en este sector, lo que supone el 11% de la población activa del Departamento. Un total de 21.000 son asalariados y 9.000 dueños de las empresas.

Uno de los retos a los que se enfrenta la actividad artesanal es el envejecimiento poblacional: el 18% de los empresarios tienen más de 55 años, lo que significa que en cinco años más de 2.000 estarán jubilados.

Los alumnos de la Cámara de Oficios y Artesanía de los Pirineos Atlánticos reciben un modelo de formación basado en la colaboración entre el joven, la empresa y el centro. El alumno alterna el trabajo con la formación. Firma un contrato de aprendizaje con su empleador, que le enseña la práctica del oficio y remunera su trabajo. En el centro, el joven adquiere una cultura general, profesional y tecnológica.

De esta manera, adquiere los conocimientos necesarios para obtener su diploma y las competencias y experiencia requeridas por las empresas. En Aquitania son 12.500 las compañías que forman a aprendices a través de este sistema.



Maximiliano Mariano Jarpa

Bicentenario de Chile
beka-programaren
nazioarteko harremanetarako
koordinatzailea

Coordinador de Relación
Internacional del programa
de Becas Bicentenario de
Chile

Berrogeita hamar bat txiletar ikasle Euskal Herriko Lanbide Heziketako bost ikastetxetan aridira prestatzen ikasturte honetan, 2008an sortu zen Bicentenario de Chile beka-sistemari esker. Maximiliano Mariano Jarpak aurkeztu zituen programaren edukiak, Donostian, “Lanbide Heziketa Mundura Zabalik” Kongresuan.

“Pozarren gaude Euskal Herriak txiletar ikasleak hartzeko izandako interesagatikan”

Medio centenar de estudiantes chilenos se forman este curso en cinco centros vascos de Formación Profesional, dentro del Sistema Bicentenario Becas Chile, que inició su andadura en 2008. Maximiliano Mariano Jarpa fue el encargado de presentar los contenidos del programa en el Congreso ‘La Formación Profesional Vasca Abierta al Mundo’ celebrado en Donostia.

“Estamos encantados con el interés que el País Vasco ha mostrado en recibir a los estudiantes chilenos”

- Zer dela-eta sortu da Bicentenario de Chile beka-sistema?

- Txileko Gobernuak martxan jarritako berrikuntza-politika dela eta. Ikasleak atzerrian prestatzeko sortu da Bicentenario de Chile beka-sistema: batetik, mundu globalizatuan nolako jarrera hartu behar dugun aztertzeke, eta ezagutza-sarearekin eta lanbide-heziketa teknikoko ikastetxeekin nola bat egin ikusteko; bestetik, Txileko hezkuntza-arloko ezagutzak nola handitu aztertzeke.

- Zer egoeratan dago Txileko hezkuntza-sistema?

- Matematikan, zientzian eta ahozko ulermenean Latinoamerikako herrialderik aurreratuena gara, baina oso urrun gaude Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko (ELGE) herrialdeen estandarretatik, eta batez bestekora ere ez gara iristen. Hori horrela, Txilen sinetsita gaude ezinbestekoa dela gure ikasle, irakasle eta hezkuntza-erakundeen oinarritzko hezkuntza-gaitasunak hobetzea.

“Euskal Herriak
abantaila handi bat
du bekadunentzat:
hizkuntza
eta kultura-
egokitzapena”

“El País Vasco
presenta una
ventaja significativa
para los becados:
el idioma y la
adecuación
cultural”

- ¿A qué obedece la creación del Sistema Bicentenario Becas Chile?

- A la política de innovación puesta en marcha por el Gobierno de Chile. El Sistema Bicentenario Becas Chile está orientado a la formación en el exterior, a analizar, por un lado, cómo nos posicionamos en el mundo globalizado, cómo nos conectamos a la red de conocimiento, a los centros de formación técnica profesional y, por otro lado, de qué manera elevamos las competencias educacionales de un país como Chile.

- ¿Y en qué momento se encuentra el sistema educativo de Chile?

- En materia de competencias matemáticas, de ciencias y de comprensión verbal somos el país mejor posicionado en Latinoamérica, pero estamos muy lejos de los estándares de los países de la OECD, ni siquiera llegamos al promedio. Teniendo en consideración esto, hay una toma de conciencia en Chile de que es absolutamente importante mejorar los estándares educacionales de nuestros estudiantes, profesores e instituciones educativas.



- Txileko ekonomiaren estrategia aldatzeak eraginik izan du Bicentenario de Chile beka-sistema martxan jartzeko?

- Bai, halaxe da. Europa Iparraldeko herrialdeekin batera, Txile munduko ekonomiarik irekiena da egun, eta beraz, pribilegiatuak gara, gure produktuak lau bat bilioi pertsona hartzen dituen merkatuan saleros ditzakegulako. Hala ere, horrek berak globalizazioaren aldaketan menpe uzten gaitu.

Azken 20 urteotan, abantailazko produktuak esportatzeko ereduak, produktu naturalak batez ere (meatzaritza, kobrea, basogintza, mahastizaintza, nekazaritza industria...), oso azkar garatzeko aukera eman digu. Baina azken lauzpabost urteotan, ekonomia moteltzen hasi da. Horrenbestez, ekoizpen-abantailen ereduari heldu behar diogula ikusi dugu. Eta horrek prestatzera eta informatzera behartzen gaitu, eta beraz, kanpora ateratzera. Horrela sortu da beka-programa hau.

- Zertan datza Bicentenario programa?

- Oso programa handia da, gure herrialdeak historian atzerrira bidali duen bekadun kopurua erruz ugaritzea helburu duena. Orain dela lau urtera arte, 400 bekadun ateratzen ziren atzerrira; azken urtean, berriz, mila joan dira programa horri esker. 2009an, 2500 lagun izango dira guztira. 2010ean, 3.300 eta 3.500 artean izango dira, eta datorren hamarkadan hala jarraitzea espero dugu. Horrek esan nahi du hamar urtetan, 35.000 lagun baino gehiago izango ditugula atzerrian ikasten.

- Zer arlotan banatzen dira bekak?

- Gradu-ondoa, Lanbide Heziketa Teknikoan eta Irakasleen Prestakuntzan. Lanbide Heziketa Teknikoan hiru sail daude: lehenengo sailean urtebeteko espezializazio-beka bat ematen da, gure lurraldean goi mailako institutu teknikoetan graduatu direnentzat; bigarren saileko beka goi mailako institutu teknikoetan eta erdi mailako ikastetxeetan lanbide-heziketa teknikoan aritzen diren irakasleak prestatzeko da; eta hirugarren beka-saila industriaren beharren (ekoizpen industria nahiz zerbitzuena) neurriari eginiko eta enpresek batera finantzatzutako programetarako da. Horiez gain, ingelesa ikasteko programa berezi bat ere badugu.

Planak sei milioi dolarreko funtsa du, hamar urtez garatuko da eta ziur gaude aurrerantzean ere martxan jarraituko duela, aldaketa politikoak gorabehera.

- Bekak 2008an jarri ziren martxan. Zenbat ikasle hartzen dute parte eta zer lurraldetan ari dira ikasten?

- Euskal Herrian, zehazki, programa pilotu bat jarri genuen martxan lehengo urtean, eta horri esker 55 ikasle Leioako Ostalaritza Eskolan, Tolosaldea GLHBI, IEFPS Usurbil, IEFPS Miguel Altuna (Bergara) eta IEFPS Ategorri-Tartanga (Erandio) ikastetxeetan prestatzen ari dira.

Beste horrenbeste ikasle, gutxi gorabehera, Australiara eta Kanadara joan ziren. Datorren urtean ere hiru herrialde horietara bidaliko ditugu ikasleak, munduko prestakuntza teknikorik

- ¿La puesta en marcha de las becas Bicentenario también obedece a un cambio de estrategia en la economía de Chile?

- Así es. Chile se ha convertido en la economía más abierta del mundo junto a los países nórdicos, lo que nos da una situación de privilegio, en la medida en que podemos poner nuestros productos en un mercado cercano a los cuatro billones de personas. Pero, a la vez, eso nos expone mucho a las variantes de este fenómeno de la globalización.

En los últimos 20 años, el modelo de exportar productos en los cuales tenemos ventajas comparativas, productos naturales fundamentalmente (minería, cobre, área forestal, viticultura, agroindustria...) nos ha permitido desarrollarnos muy rápidamente. Pero, a partir de los últimos cuatro o cinco años, la economía ha empezado a ralentizarse. Hemos tomado conciencia de que tenemos que adoptar el modelo de las ventajas productivas. Y eso significa capacitación e información y, por ende, salir al exterior. Y de ahí surge este programa de becas.

- ¿En qué consiste el programa Bicentenario?

- Es un programa muy ambicioso que está orientado a aumentar drásticamente el número de becados que históricamente ha enviado el país al exterior. Hasta hace cuatro años, salían al extranjero 400 becados, el último año subimos a mil, producto del inicio de este programa. En 2009, alcanzaremos las 2.500 personas y, en 2010, serán entre 3.300 y 3.500, y así sucesivamente durante la próxima década. Eso significa que, en diez años, tendríamos estudiando en el extranjero a más de 35.000 personas.

- ¿En qué áreas se distribuyen las becas?

- En las áreas de Postgrado, Educación Técnica Profesional y Capacitación de profesores. En Educación Técnica Profesional hay tres apartados. El primero es una beca de especialización de un año para graduados en los institutos técnicos superiores del país. El segundo, formación de profesores de los institutos técnicos superiores y de los colegios de educación media que están orientados a la formación técnica profesional. Y, en tercer lugar, programas hechos a medida para las necesidades de la industria, tanto productiva como de servicios, co-financiados por las empresas. Además, tenemos un programa especial para el aprendizaje de inglés.

El plan cuenta con un fondo de seis millones de dólares. Tiene un desarrollo de diez años y estamos seguros de que va a continuar, independientemente de los cambios políticos que se puedan dar.

- Las becas se pusieron en marcha en 2008. ¿Cuántos alumnos participan y en qué países cursan sus estudios?

- En el caso específico del País Vasco, el año pasado partimos con un programa piloto por el cual 55 alumnos reciben formación en la Escuela de Hostelería de Leioa, Tolosaldea GLHBI, IEFPS Usurbil, IEFPS Miguel Altuna (Bergara) y IEFPS Ategorri-Tartanga (Erandio).

Un número parecido viajó a Australia y otro tanto a Canadá. El año que viene repetiremos con estos tres países, que destacan por su competencia en la formación técnica a nivel mundial, y seguramente integraremos a Francia y Alemania.

“Bicentenario oso programa handia da, gure herrialdeak atzerrira bidaltzen duen bekadun kopurua erruz ugaritzea helburu duena”

“Con el programa Bicentenario, en diez años tendríamos estudiando en el extranjero a más de 35.000 personas”



onenetakoa dutelako. Eta horiez gain, Frantzia eta Alemania ere sartuko dira seguru asko programan.

- Nolakoa da Euskal Herriko esperientzia?

- Oso pozik gaude Euskal Herriak txiletar ikasleak hartzeko izandako interesagatik. Atzo ikastetxe batera bisitan joan nintzaizen eta irakasleek esan zidaten oso pozik daudela gure ikasleen mailarekin. Bestalde, bekadunak ere oso gustura daude kalitatearekin eta jasotako tratuekin. Eraitza oso ona da, eta datozen urteetan ere errepikatuko dugu.

- Zer eskaintzen die Euskal Herriak txiletar ikasleei?

- Zuek abantaila adierazgarri bat duzue: hizkuntza. Nazio-industriaren beharretan eta ildo horretan atzerrian dagoen heziketa-eskaintzan oinarritutako lan-plan bat diseinatzerakoan, askoz ere errazagoa da hizkuntza bera duen herrialde batekin lanean jardutea.

Ikasle eta bekadunentzat, bestalde, hizkuntza da beka-programaren itogunea, arazo nagusia. Hain zuzen ere, hizkuntzak irakasteko programa zehatz bat txertatzea ere erabaki dugu.

Kontuan izan behar dugu prestakuntza teknikora jotzen duten pertsonak maila sozio-ekonomiko baxuagokoak direla, eta horrenbestez, hizkuntzak ikasteko arazo gehiago dituztela.

- Hortaz, hizkuntza lagungarri da bekadunek Euskal Herria aukeratzeko?

- Zuen da seguru asko herrialderik laboratuena. Nahiko seguru nago horretaz, Euskal Herria ikaragarri erakargarria baita beka atzerrian egingo duen ororentzat, hizkuntzarengatik eta kulturarengatik. Gaztelaniak eta euskarak aztarna joria utzi dute Txilen. Nik neuk euskal abizen asko ditut, hainbat eta hainbat txiletarrekin bezalaxe. Sintonian, armonian eta kultura-egokitzapenean Euskal Herriak abantaila du, eta hori ere lagungarri izango zaio.

- Zertan datza Txilek eta Eusko Jaurlaritzak Bicentenario programaren inguruan sinatu duten akordioa?

- Lehen urterako, 2008-2009 ikasturterako, elkarlanerako memoranduma sinatu dugu. Hala ere, lankidetzat-hitzarmen zabalagoa sinatzeko negoziazioetan ari gara, hainbat urterako harremana jasotzen duena eta aurrerantzean Euskal Herriko ikastetxeetara bekadunak etengabe bidaltzeko aukera emango diguna.

- Zein dira Txilerentzat lehentasunezko prestakuntza-arloak?

- Lanbide Heziketa Teknikoan, Berrikuntza Batzordeak Txileren garapenerako lehentasunezkoztat jo dituen sailak. Ildo horretan, Euskal Herria prestakuntza-hornitzaile garrantzitsua izan daiteke hainbat arlotan: nekazaritza-industrian, energia berriztagarrietan, Informazioaren eta Komunikazioaren teknologietan (IKT), hezkuntzan eta osasunean, batez ere.



“Euskal ikastetxeak prestakuntza-hornitzaile handi bihurtzeko hainbat arlotan: nekazaritza-industrian, energia berriztagarrietan, Informazioaren eta Komunikazioaren teknologietan (IKT), hezkuntzan eta osasunean, batez ere”

“Los centros vascos pueden ser unos grandes proveedores de formación en ámbitos como la agroindustria, energías renovables, TICS, educación y salud”



- ¿Cómo está resultando la experiencia en el País Vasco?

- Estamos encantados con el interés que el País Vasco ha mostrado en recibir a los estudiantes chilenos. Recientemente estuve de visita en uno de los centros y los profesores me corroboraron que están muy contentos con el nivel de nuestros alumnos. Y por parte de los becados hay pleno reconocimiento a la calidad, a la dedicación con la que les tratan. Valoramos sobremanera la experiencia y la vamos a repetir.

- ¿Qué ofrece el País Vasco a los estudiantes chilenos?

- Ustedes tienen una ventaja que es significativa: el idioma. A la hora de diseñar un plan de trabajo basado en las necesidades de la industria nacional y la oferta formativa que, en ese sentido, existe en el exterior, es mucho más fácil hacerlo con un país que comparte la misma lengua.

En el caso de los alumnos y becados, el componente del idioma es el cuello de botella que tiene el programa de becas, es donde reside el mayor problema. Tanto es así que se ha decidido incluir un programa específico de enseñanza de lenguas.

Hay que tener en cuenta que, además, las personas que acceden a la formación técnica proceden de un estamento socio-económico más bajo, y sus dificultades para aprender otro idioma van a ser mayores.

- Por tanto, el idioma favorecerá que los becados opten preferentemente por el País Vasco.

- Ustedes deberían ser el país más favorecido. Me atrevo a decirlo casi con un grado de certeza bastante alto, porque a la persona que postule a la beca en el exterior, el País Vasco le va a ser brutalmente atractivo, ya que tiene incorporado el elemento idioma y el elemento cultural. Chile es un país de una herencia castellano-vasca muy fuerte, incluso muchos de mis apellidos son vascos, y eso se repite en una parte importante de la población chilena. En términos de sintonía, de armonía, adecuación cultural, el País Vasco tiene una ventaja y va a salir muy favorecido.

- ¿En qué consiste el acuerdo que ha firmado Chile con el Gobierno Vasco para el programa Bicentenario?

- De cara a este primer curso 2008-2009 que está finalizando, firmamos un memorando de entendimiento. No obstante, ya hemos iniciado las negociaciones para suscribir un convenio más amplio que contemple una relación de años, donde constantemente estemos mandando un contingente de becados a los diferentes centros del País Vasco.

- ¿Qué áreas de formación son prioritarias para Chile?

- En el caso de la rama de Formación Técnica Profesional, se trata de las áreas que el Consejo de Innovación ha decidido que van a ser prioritarias en el desarrollo de Chile. En este sentido, el País Vasco puede ser un gran proveedor de formación en ámbitos como la agroindustria, energías renovables, TICS, educación y salud.



Kitte Marttinen

Nazioarteko Proiektuen zuzendaria Adultan (Finlandia) | Directora de Proyectos Internacionales de Adulta (Finlandia)

“Ez dakigu ziur pertsonak berritzaileagoak eta sortzaileagoak nola eta zer egoeratan izan daitezkeen”

“Hay muy pocas evidencias de cómo y en qué condiciones las personas pueden ser más innovadoras y creativas”

Kitte Marttinen, Nazioarteko Proiektuen zuzendaria Adultan (Finlandia), Creanova proiektuaren bultzatzailetako bat da. Proiektu horretan, Europako beste zazpi herrialdeetako kideekin batera, Tknika Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroak ere parte hartzen du. Proiektuaren helburua, berriz, sormenak berrikuntza-ahalmenean duen zeregina aztertzea eta emaitzak gazte eta helduen lanbide-heziketan erabiltzea da.

Kitte Marttinen, directora de Proyectos Internacionales de Adulta (Finlandia) es una de las impulsoras de Creanova, un proyecto europeo en el que participa el Centro de Innovación para la Formación Profesional, Tknika, junto a socios de otros siete países europeos. El objetivo es analizar la función de la creatividad en la capacidad de innovación y aplicar los resultados en la formación profesional de jóvenes y adultos.



- Nola sortu zen Creanova?

- Finlandiako beste institutu bateko emakume irakasle batek eta biok Europako Batzordeak zeharkako ikerketa-programak abiarazi zituela ikusi genuen. Programa horietako baten helburua, hain zuzen, jarduera sortzaileek ikasketa-prozesuan duten eginkizuna eta berrikuntza-ahalmena duten pertsonengan dituzten eraginak aztertzea zen.

Kideak bilatu ondoren, proiektua aurkeztu genuen eta gaur arte. Gure arreta nagusia Lanbide Heziketari eta helduenari eskaintzea erabaki genuen, berrikuntzaz hitz egiten denean, beti

- ¿Cómo surge Creanova?

- Una profesora de otro instituto finlandés y yo vimos que la Comisión Europea había puesto en marcha programas transversales de investigación. Uno de ellos se centraba en el papel de las actividades creativas en el proceso de aprendizaje y sus impactos en las capacidades de las personas para innovar.

Buscamos socios, presentamos el proyecto y hasta hoy. Decidimos centrarnos en la Formación Profesional y para adultos porque cuando se habla de innovación siempre se limita al ámbito universitario.

unibertsitatearen esparrura mugatzen delako.

- Nork hartzen dute parte Creanovan?

- Hiru urterako proiektua da, eta zortzi herrialdeetako hamaika kidek parte hartzen dute. Euskadiri dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Eusko Jaurlaritzak arduratzen dira proiektua koordinatzeaz, Tknikarekin eta Innobasque-rekin batera. Gainerako kideak, Finlandia, Akitania (Frantzia), Irlanda, Eskozia, Estonia eta Italiakoak dira. Proiektuaren jarraipena egingo duen kanpoko ebaluatzailea, berriz, Alemaniakoa.

- ¿Quiénes participan en Creanova?

- Se trata de un proyecto de tres años, en el que participan once socios de ocho países. Por parte de Euskadi, la Universidad de País Vasco, encargada de coordinar el proyecto, y el Gobierno Vasco junto a Tknika e Innobasque. El resto de socios proviene de Finlandia, Aquitania (Francia), Irlanda, Escocia, Estonia e Italia. De Alemania procede un evaluador externo que hará un seguimiento del proyecto.

- ¿Cuándo comenzó esta iniciativa?

- Empezó en diciembre de 2008 y concluirá en 2011 con una gran conferencia en el País Vasco



“Creanova 2008ko abenduan hasi zen eta 2011n bukatuko da Euskal Herrian, emaitzak ezagutzera emango dituen hitzaldi handi baten bidez”

“Creanova empezó en diciembre de 2008 y concluirá en 2011 con una gran conferencia en el País Vasco en la que se difundirán los resultados”

- Noiz hasi zen ekimen hori?

- 2008ko abenduan hasi zen eta 2011n bukatuko da Euskal Herrian, emaitzak ezagutzera emango dituen hitzaldi handi baten bidez. Jarduera-sortzaileek nola lan egiten duten, ikasleek era sortzaileagoan nola ikas dezaketen eta horrek berrikuntza-ahalmenean nola eragiten duen ikertu behar dugu. Eta arretarik handiena heziketa teknikoan eta industria sortzailean jarriko dugu.

Euskal Herrian, Finlandian, Eskozian eta Italian gauzatzen diren ohitura onak bilatu eta, guztiz interesgarria den zerbait aurkitutakoan, beste herrialde batzutan frogatuko dugu. Enpresetan edo institutuetan lan egiten duten profesionalak ere elkarriketatuko ditugu. Azken finean, pertsonak berritzaileagoak izateko enpresak edo eskolak zer eskaini dezakeen ikertu nahi da.

- Zer adierazten dute proiektua abiarazi aurretik eginiko ikerketek?

- Askok hitz egiten da sormenaz eta berrikuntzaz, baina ez dakigu ziur jendea berritzaileagoa eta sortzaileagoa nola eta zer egoeratan izan daitekeen, oso informazio eta datu gutxi baitaude.

- Eta zer egoeratan dago proiektua?

- Orain oinarri teorikoa lantzen ari gara. Lehen-lehenik, sormenarekin eta berrikuntzarekin esan nahi dena zehaztu behar dugu. Horretarako, herrialde kide guztien artean sormenari eta berrikuntzari buruzko analisiak eta teoriak bilatu eta, gero, Euskal Herriko Unibertsitatera bidaliko ditugu, han azter ditzaten. Jarraian, lehen aipatu ditudan ohitura onak, heziketa berritzaile eta sortzaileak, bilatu eta profesionalak

que difundirá los resultados. Vamos a analizar cómo funcionan las actividades creativas, cómo los alumnos pueden aprender de una manera más creativa y cómo influye en su capacidad de innovar. Y nos centraremos en la formación técnica y la industria creativa.

Vamos a buscar buenas prácticas que se desarrollan en el País Vasco, Finlandia, Escocia e Italia, y cuando encontremos algo muy interesante lo probaremos en otros países. Asimismo, entrevistaremos a profesionales que trabajan en empresas o institutos. En definitiva, se trata de averiguar qué condiciones puede ofrecer una empresa o una escuela para que las personas sean más innovadoras.

- ¿Qué indican los estudios realizados antes de la puesta en marcha del proyecto?

- Se habla mucho de la creatividad, de innovación, pero hay muy poca información, datos, evidencias de cómo y en qué condiciones la gente puede ser innovadora y creativa.

- ¿Y en qué punto se encuentra el proyecto?

- En la fase de elaboración de la base teórica. En primer lugar, debemos definir qué se quiere decir con creatividad e innovación. Para ello, entre todos los países socios buscamos análisis y teorías sobre creatividad e innovación, que después enviaremos a la Universidad del País Vasco para que lo analice. A continuación, vamos a buscar las buenas prácticas, formaciones innovadoras y creativas que antes he mencionado y realizaremos las entrevistas a los profesionales. Finalmente, elaboraremos un informe con recomendaciones



elkarrizketatuko ditugu. Azkenik, gomendioak bilduko dituen txostena egin eta European hezkuntza-alorrean lan egiten duten politikariei bidaliko diegu.

- Pentsatu al duzue 2011tik aurrera Creanova jarraipena emateko formularik?

- Proiektuaren barruan, lanbide-irakaskuntzan eta helduenean berrikuntzaz eta sormenaz arduratuko den elkarte europarra sortuko dugu. Askotan, unibertsitateko irakaskuntzari lotutako berrikuntzaz bakarrik hitz egiten da, baina berrikuntza maila guztietan, egiten ditugun lan guztietan aplikatu behar dugu. Lehen bilkura 2011n, Euskal Herrian, egingo duen elkarte horrekin, Creanova emaitza iraunkorrak dituen proiektua izatea lortuko dugu.

Informazioa eskatu, ikerketak egin eta, etengabe, ohitura onak aplikatuko ditu. Gobernuak, unibertsitateak, Lanbide Heziketako ikastetxeak, irakasleek nahiz enpresetan lan egiten dutenek parte hartu eta gaiari buruzko informazioa eskuratu ahal izango dute.

Profesionalen elkarrizketek buruzko dokumentala ere egingo dugu, ETBn, herrialde kideetako telebista-kateetan eta interesgarria iruditzen zaien beste guztietan emateko.

- Zuk ordezkatzan duzun zentroak lankidetzaz estua du aspalditik Euskadiko Lanbide Heziketako zentroekin. Azalduko al diguzu zer lan egiten duzuen?

- Adulta jende helduarentzako lanbide-heziketako zentroa da. 250 langile gara eta lau heziketa-sail ditugu: teknikoak, merkataritzakoa, zerbitzuak, kultura arteketasuna eta industria sortzailea. Azken sail horretan lan egiten dut nik. Nire sailean, ikus-entzunezkoen sektorean lan egiten dutenak hezteaz gain, beste profesional batzuk ere trebatzen ditugu ekimenaren alorrean, hala nola, musikariak, artistak, diseinatzaileak...

- Noiz hasi zen Adultaren eta euskal LH zentroen arteko lankidetzaz?

- 2000. urtean hasi zen, Usurbil GLHBiko hiru ordezkari bisitatu gintuztenean. Harrezkero, ikasle-trukeak nahiz hainbat proiektu pilotu burutu ditugu. Esate baterako, etorkinen heziketari buruzko programa garatu dugu beste hiru herrialderekin batera, hainbat gai jorratuz: nolako heziketa eman behar zaien etorkinei, kontuan eduki beharreko gorabeherak,...

Adultako irakasleek ere bisitatu dituzte Euskal Herriko LH ikastetxeak. Hemen Lanbide Heziketari arreta handia eskaintzen zaiola eta oso kalitate-sistema sendoak erabiltzen direla ikusi dugu.

- Heziketa iraunkorrak garrantzi handia du Finlandian, ezta?

- Bai, helduen heziketarako nahiko sistema sendoa dugu. Adultan, zehazki, 13.000 ikasle ditugu.

que enviaremos a los políticos que trabajan en el campo de la educación en Europa.

- ¿Han pensado en alguna fórmula para dar continuidad a Creanova mas allá de 2011?

- A lo largo del proyecto vamos a crear una asociación europea que se centre en innovación y creatividad en la enseñanza profesional y de adultos. Muchas veces se habla sólo de innovación vinculada a la enseñanza universitaria, cuando necesitamos aplicarla en todos los niveles, en todos los trabajos que hacemos. Con esa asociación, que celebrará su primera reunión, en 2011, en el País Vasco, lograremos que Creanova sea un proyecto con resultados sostenibles.

Recabará información, realizará investigaciones y aplicará buenas prácticas de forma continuada. Tanto gobiernos, universidades, institutos de Formación Profesional, profesores, como gente que trabaje en empresas podrá participar y obtener información sobre esta cuestión.

También vamos a realizar un documental sobre el proceso de entrevistas a los profesionales para que sea emitido en ETB, en las cadenas de televisión de los países socios y en aquellas que estén interesadas.

- El centro que usted representa mantiene desde hace años una estrecha colaboración con centros de Formación Profesional de Euskadi. ¿Nos puede explicar cuál es la actividad?

- Adulta es un centro de formación profesional para adultos. En él trabajamos 250 personas, y contamos con cuatro departamentos de formación: técnico, comercial, servicios e interculturalidad, e industria creativa, que es donde trabajo yo. En mi departamento, impartimos formación para personal que trabaja en el sector audiovisual, pero también formamos a otros profesionales en el campo del emprendizaje, por ejemplo, a músicos, artistas, diseñadores...

- ¿Cuándo comenzó la colaboración de Adulta con los centros de FP vascos?

- Empezó en el año 2000, cuando nos visitaron tres representantes del IEFPS Usurbil. Desde entonces, hemos llevado a cabo intercambios entre alumnos así como diferentes proyectos piloto. Por ejemplo, hemos desarrollado un programa junto a otros tres países sobre cómo impartir formación a inmigrantes, qué cuestiones hay que tener en cuenta...

Asimismo, profesores de Adulta han visitado los centros del FP del País Vasco. Lo que hemos visto es que aquí se presta mucha atención a la Formación Profesional, que se aplican sistemas de calidad muy sólidos.

- ¿La formación continua tiene mucho peso en Finlandia, no es así?

- Sí, disponemos de un sistema para educación de adultos bastante fuerte. En concreto, en Adulta tenemos 13.000 alumnos.

“Euskal Herriko, Finlandiako, Eskoziako eta Italiako heziketa-zentroetan gauzatzen diren ohitura onak bilatu eta lanean diharduten profesionalak elkarrizketatuko ditugu”

“Buscaremos buenas prácticas desarrolladas en centros de formación del País Vasco, Finlandia, Escocia e Italia y entrevistaremos a profesionales en activo”

